# ZER GERTATU DA? ¡IGERILEKUA HUTSIK DAGO!

MISTERIOA ARGITZEKO, **BILATU 4 OBJEKTU HAUETAKO BAT ETA ZOAZ ALBOAN DUEN ZENBAKIAREN ORRIALDERA**. KONTUZ IBILI, EZ DUGU-ETA OKERREKO ORRIALDEAN AMAITU NAHI. ZORTE ON!



AURKITU AL DITUZU 4 OBJEKTUAK? ETA KOADERNOKO JARDUERA GUZTIAK EGIN AL DITUZU? KOADERNOKO ERRONKA GUZTIAK AMAITU BADITUZU, ZOAZ 62. ORRIALDERA!

# KAIXO, FAMILIA!

Ebatzi elkarrekin Enigmatheko erronkak!

## ZER DA ENIGMATH?

Enigmath erronka matematikoen koadernoa da. Bertan, etxeko txikiek misterio zirraragarri bat argitu beharko dute, bmathtarren kuadrilla protagonista duena. Abentura 2. orrialdean hasten da, eta misterioa argitzeko haurrek **lau bide egin beharko dituzte, bakoitza leku ezberdin batean egokitua.**




Guztira, **erronka matematikoz jositako 60 orrialde baino gehiago**, eskolan landutako edukiak berrikusteko. Horrez gain, hamaika galdera aurkituko dituzue harago joateko eta **arrazoiketa** bultzatzeko, **ideiak lotzeko**, **komunikatzeko** eta **problemak ebazteko**.

## NOLA ATERA AHALIK ETA ETEKINIK HANDIENA ENIGMATHI?

- Egin **egunero pare bat orrialde**, jarduera bakoitzaz ondo gozatzeko.
- Planteatu harago joateko **galderak**, eta eztabaidatu erantzunen inguruan.
- Erronka bakoitza egin ostean, **egiaztatu erantzunak** zuzenak direla. Horrela, erronkak **dagokion ordenan** ari zaretela egiten ziurtatuko duzue.



Koadernoaren barruan **poster** bat aurkituko duzue: erronka guztien erantzunak daude **atzean**. Erantzunak bertsio digitalean nahi badituzue, **QR** kodea eskanea dezakezue, edo webgunera jo:

qr.innovamat.com/sol-euk

**bmath aplikazioa** Enigmath koadernoaren osagarri bikaina da. **Astean bitan** erabiltzea gomendatzen dugu, 20 minutuz.

## NOLA LAGUNDU DEZAKEGU ETXEAN?



Bada, **galdera** mordoa eginez! «Nola egin duzu hori? Nola heldu zara ondorio horretara? Daturik falta zaizu?». Oso garrantzitsua da galderak egoera bakoitzera egokitzea, gauzen zergatia ulertzea eta haurrari **arrazoitzen** uztea. Batzuetan, haurrak ez du jakingo gauzak ondo azaltzen, edo agian ez diozu behar bezala ulertuko. Baina hori ere prozesuaren parte da! Enuntziatu batzuk elkarrekin irakur ditzakezue, baita erantzunak elkarrekin bilatu ere, baina izan dadila haurra gidari. Helburua, azken finean, **familian eztabaida** sustatzea eta zeregina **aberastea** da.

Baliteke estrategia batzuk guk, helduok, haur ginela ikasi genituenen desberdinak izatea. Zer estrategia diren eta nola erabiltzen ditugun jakin nahi baduzue, *Kalkulu-estrategiak 2 minututan* izeneko bideoa ikus dezakezue:

qr.innovamat.com/video-euk



## INNOVAMAT: IKASTEKO BESTE MODU BAT

Matematika ondo menderatzen duen gizartea behar dugu, datozen erronkei aurre egin ahal izateko. Horregatik, matematika ikasteko **konpetentzietan oinarritu** behar dugu, **ezagutzak ondo eraikitzeko** eta ez ahazteko. Modu horretan, haurrek beren gaitasun matematikoak garatuko dituzte; problemen aurrean soluzioak aurkituko dituzte, espiritu kritikoa izango dute eta mundua ulertzeko gai izango dira, aldatzeko eta gozatzeko.

Informazio eta baliabide gehiago nahi badituzue, bisitatu gure familien webgunea:

qr.innovamat.com/blog-euk



OSO ONDO! ZENBAKIEN IZARRAK POLIT-POLIT GERATU DIRA! PLAZA BATERA IRITSI GARA... EA HEMEN PISTAREN BAT AURKITZEN DUGUN.

1. DOMINOKO FITXA BAKOITZEAN 2 ZENBAKI AGERI DIRA. EGIN BIEN ARTEKO KENKETA. ONDOREN, GORDE FITXA BAKOITZA DAGOKION KAXAN.

ADIBIDEZ →  → 5 – 2 = 3








BEREZ, DOMINOAK FITXA GEHIAGO DAUZKA.
ZEINTZUK DIRA? ZEIN KAXATAN GORDEKO ZENITUZKE?

2. ERREPARATU BEHEKO BARRA-DIAGRAMARI. ELEMENTU BAKOITZETIK ZENBAT DAUDE?




2 ........ ........ ........ ........ ........

3. MARRAZTU BARRA-DIAGRAMAKO ELEMENTUAK PLAZA HONETAN:





ZENBAT USO, BIZIKLETA ETA ZUHAITZ DAUDE GUZTIRA? ELEMENTU HORIEN BATURAK ESANGO DIZU ZEIN ORRIALDETARA JOAN BEHAR DUZUN.



OSO ONDO! GURUTZEGRAMA OSATU DUZU. HARA! HIRITIK URRUNDU GARA. BASAMORTU ERDIAN GAUDE!

1. HONDARRETAN BEHEKO FORMA HAUEK ZEUDEN. LOTU FORMA BAKOITZA DAGOKION GORPUTZAREKIN.





EGIN AL DEZAKEGU BESTE FORMAREN BAT BESTE OBJEKTU BATZUEKIN? AURKI ITZAZU GUZTIAK.

2. IDATZI ZENBAT KARRATUTXO DAUDEN MARGOTUTA. ONDOREN, MARGOTU GEZIAK DAGOKIEN KOLOREZ ETA EGIN BIDEA. AZKENIK, IDATZI ZENBAT KARRATUTXO FALTA DIREN 100ERA IRISTEKO.








BEJONDEIZULA! FRUTA BAKOITZAK ZENBAT BALIO ZUEN AURKITU DUZU. IKUSI AL DUZU? BASOAN GAUZA MORDOA DAUDE.
HOSTOAK, PERRETXIKOAK, ENBORRAK, EZKURRAK...

1. LOTU BERDINAK DIREN IRUDIAK BIDEAK GURUTZATU GABE. BAINA KONTUZ! EZIN DUZU GELAXKARIK HUTSIK UTZI.







GAI AL ZARA HOSTO BATETIK BESTERA JOATEKO EGIN BEHAR DEN BIDEA AZALDU EDO IRUDIKATZEKO?

2. OSATU SEGIDA HAUEK:




3. OSATU BESTE SEGIDA HAU. BAINA KONTUZ! HASIERAKO ZENBAKIAK FALTA DIRA.








# HOTZ HANDIA EGITEN DU...

IZOTZAREN LURRALDEAN GAUDE!
AZTARNEI JARRAITZEN BADIEGU, AGIAN
BOTEN JABEARENGANA IRITSIKO GARA...
EGIN BEHEKO JARDUERAK HURRENGO ORRIALDEA
ZEIN DEN JAKITEKO!

1. EZAGUTZEN AL DITUZU FIBONACCIREN ZIZAREAK? ZIRKULU BAKOITZA AURREKO BIEN BATURA DA.

   OSATU ZIZARE HAUEK:















BURURATZEN AL ZAIZU AZKEN ZIZAREA OSATZEKO BESTE MODURIK? SAIA ZAITEZ!



2. EGIN DITZAGUN KOLORETAKO SUDOKUAK! GOGORATU:
   - LAU KOLORE BAINO EZIN DITUZU ERABILI.
   - EZIN DUZU EZ ERRENKADA, EZ ZUTABE, EZ KOADRANTE BEREAN KOLORERIK ERREPIKATU.







ZEIN KOLORETAKOA DA GELAXKA HAU? ZOAZ KOLORE BERA DUEN ZENBAKIAREN ORRIALDERA:

32 50 40 12

